

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 434

*112/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Itxaso Martínez de Aguirre Barcina andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Giza Baliabideen Gainbegirale kargutik kendu egin den, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

119/2018 Ebazpenaren bidez, Itxaso Martínez de Aguirre Barcina andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Giza Baliabideen Gainbegirale izendatu zen, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Itxaso Martínez de Aguirre Barcina andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Giza Baliabideen Gainbegirale kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko urtarrilaren 31n izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 18a.

Arabako ESko zuzendari-gerentea,  
JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.